

2020KO APIRILA
www.begiko.com



begiko etxean



begiko



Irakurri... plazer iturri!

Antzerkia

Gure hurrek irakur dezaten nahi badugu, antzerkia literaturaz gozatzeko modu erakargarri eta ezberdina izan daiteke.

1

Testu, ipuin edo nobela bat hautatu eta irakurri ondoren, haien obra sortzeko moldatu ahal izango dute. Aktore bihurtuko dira horrela, edo haien txotxongiloei bizia emango diete.

Hori lortzeko ideiak topatuko dituzu hemen.



Antzerki jolasak

Antzerkiarekin, liburuekin bezalaxe, haurrak irudimenezko mundu txundigarrian murgildu ahal izango dira.

Arropa erosoarekin eta lasai mugitzen utziko digun leku batean, jolas batzuk egingo ditugu. Jolas horiek aktore bihurtzeko lehen beroketak izango dira.

Presta gaitzen hasi baino lehen...

1. Imintzioak egin

Hurrek emozio ezberdinak hitzik gabe adierazi beharko dituzte, keinu edo imintzioen bidez. Hasteko, arruntenak edo ohikoenak adierazteko eska diezaiekegu: **Zer egiten duzu zoriona, tristura, beldurra, haserrea sentitzean?**

Beste keinu edo imintzio batzuk egiteko eska diezaiekegu jarraian, adibidez: **zalantza, lotsa, garaipena, etsipena, hunkitzea, etab.**

Horiek lortzeko, imintzio hori eragin dezaketen istorio txikiak kontatu ditzakegu, adibidez:

- *Altxor bat topatu duzu.*
- *Estuegi dituzu zapatak*
- *Hiri ezezagun batean galdu zara.*
- *Txori bat zara ekaitzaren erdian.*
- *Sari bat irabazi duzu.*
- *Kalera irten eta konturatu zara ez dituzula galtzak jantzi.*

Soinuak ere egin ditzakete imintzioa indartzeko.

2. Ahoskatu

Testu labur bat, atsotitz bat edo esaldi bat ahoskatu beharko dute.

Esaterako: A zer pareta, karakola eta bareta!

Hainbat ariketa egingo dituzte, esate baterako:

- Hitzak azken silaba luzatuz ahoskatzea.
- Bokalak ordezkatzeko eta bakarrik erabiltzea.

Adibidez: A zar paraa, karakala eta baraa!

- Esaldi bera ahoskatzea ahoa O forman mantenduz edo irribarre egiteko moduan luzatuz.
- Mokoak balute bezala ahoskatzea.
- Hortzak banatu gabe.
- Atzerriko ahoskera erabiltzea edo beste planeta bateko biztanle batena sortzea.

3. Objektu baten ezaugarriak aldatzea

Haurrari objektu bat emango diogu, kuxin bat esaterako, eta objektuari emandako ezaugarriaren arabera jokatu beharko du:

- Oso baliotsua.
- Arantzaduna.
- Kristalezkoa eta hauskorra.
- Gaiztoa eta desatsegina.
- Oso astuna.
- Leher egitear den xaboi burbuila.
- Katu zauritua.
- Armiarma edo sugea.
- Lapiko beroa.
- Zaratatsua.

Prest gaude...

4. Testu bat bilatu

Prest gaude dagoeneko emanaldirako. Antzerki obra xume bilakatu dezakegun ipuin edo istorio bat bilatu edo sortu beharko dugu.

Emanaldirako iradokizun batzuk emango dizkizugu hemen.

Eta, bestela...

5. Istorio bat asmatu

1. Hasi istorioa sortzen:

- Bazen behin zelaian oinez zebilen mutiko ausart bat...
- Bazen behin Lurrera heldu zen estralurtar bat. Haren lagun bihurtu nintzen eta abentura zirraragarriak bizi izan genituen elkarrekin...
- Hau zaunka egiteari utzi eta hitz egiten hasi zen zakurrari buruzko istorio sinestezina da...

2. **Jarraitu istorioa** osatzen bakoitzak hiru esaldi gehituta. Hareazko erloju bat erabil daiteke esaldiak denbora baten barruan botatzeko.

Istorioan zehar hainbat eta egoera eta emozio gehiago, hobe. Horrela, haurrak zoriona, tristura, sorpresa, haserrea, bidegabekeria... adierazi ahal izango ditu.


3. **Istorioa** benetako aktore edo txotxongilolariek bezala **antzezteko** erabiliko dugu.



Inspirazioak: Istorioak kontatu

Beharrezko materialak

- 1. eranskina inprimatu
- Guraize edo artaziak
- Poltsa bat



1. Eranskinetako txartelak moztu eta poltsan sartu.

2. Lehen jokalariak txartel bat atera behar du.

Irudia erakutsi eta honen arabera istorioa kontatzen hasi beharko da.















Adibidez, koroa bat bada zera esan dezake:

- *Bazen behin erregina bat...*
- *Duela urte asko galaxiako erregeak...*
- *Printzesa esnatu zenean...*
- *Parkean koroa bat topatu nuen...*

3. Narrazioa zabalik utziko du ondoko jokalariak beste txartel bat hartu eta istorioarekin jarrai dezan.

Txartelak lerroan jarriko ditugu atera arabera, istorioaren denbora-lerroa osatzeko.

Zure txartelak marraztuz edo beste irudi batzuk moztuz ere sortu ditzakezu.






Sortu zure antzokia


Beharrezko materialak

- Kartoia
- Guraizeak edo artaziak
- Margoa eta pintzelak
- 2. eta 3. eranskinak inprimatzea
- Errotulagailuak edo koloretako margoak


1.Irudia



2. Irudia











3.Irudia



Koloreztatu eranskinak errotulagailuz edo koloretazko margoz. .

Moztu eta itsatsi antzokia apaintzeko.








Antzoki txikia



Beharrezko materialak

- 4. eranskina inprimatzea
- Koloretako errotulagailuak
- Guraizeak edo artaziak
- Antzetzeko prest dagoen hatza

1. Irudia




2. Irudia




Moztu lerro grisetatik

Erdetik tolestu


3. Irudia



Tolestu



“Antzoki txikia” eraiki-takoan, hatz-mami batean aurpegi bat marraztuko dugu. Hori izango da “aktore” protagonista.





Koilarak: aktoreak


Beharrezko materialak


- 5. eta 6. eranskinak inprimatzea
- Errotulagailu iraunkorra
- Guraizeak edo artaziak
- Grapak
- Koilarak



12









14



Egin ezazu paperezko ileorde bat



Beharrezko materialak

- Kartoizko kutxa bat (adib. zerealena)
- Serpentinak (edo paperezko xingola edo zerrendak)
- Guraizeak edo artaziak
- Kola edo lekeda



1. Moztu kartoizko zerrendak eta marrazkian bezala elkarri itsatsi.

2. Serpentinak moztu eta kartoizko oinarriari itsatsi.



Birziklatu-tako folioak gorantz itsatsita.



Atrezzoak I: muturra eta maskara

Italieratik datorkigun atrezzo delakoa antzerkiko pertsonaiek erabili ohi dituzten osagarrien multzoa da.

Antzerkian jantziak erabiltzen dira interpretatuko den pertsonaiaren itxura moldatzeko.

1. Mutur bat

Beharrezko materialak

- Kartoizko edalontzia
- Errotulailu beltza







2. Maskara

16

Beharrezko materialak

- 7. eranskina inprimatzea
- Errotulagailuak
- Purpurina
- Lastotxo bat
- Zeloak








Atrezzoak II: bibotea, bekainak eta bizarra


Beharrezko materialak

- 8. eranskina inprimatzea (bibotea eta bekainak)
- 9. eranskina inprimatzea (bizarra)
- Guraizeak edo artaziak
- Parte hartzeko prest dagoen sudur bat

3. Bibote bat eta bekain batzuk





4. Bizar bat



Moztu er-
diko iru
kia sudurra
sartu ahal
izateko.







20



Egilea
Inés Burgos

Azaleko ilustrazioa
Rafael Salmerón

El oso cansado
(Loqueleo 2016) liburutik hartua